





### BIGITHARTE HORIEK :

- Ⓢ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
- Ⓣ " " Argizagi azken laordena.
- Ⓤ " " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
- Ⓦ " " Argizagi lehen laordena.

### OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthailako* 16<sup>an</sup> ; — HAOSTE, *martchoko* 4<sup>an</sup> ; — BAZKO, *aphirilako* 19<sup>an</sup> ; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 25<sup>an</sup>, 26<sup>an</sup> eta 27<sup>an</sup> ; — SALBATORE, *maiatzeko* 28<sup>an</sup> ; — PHENTEKOSTE, *arramaiazeko* 7<sup>an</sup> ; — BESTABERRI, *arramaiazeko*, 18<sup>an</sup> ; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azaroko*, 29<sup>an</sup>.

### LAOR THENPORAK :

|  |   |   |
|--|---|---|
| Martchoko 11 <sup>n</sup> , 13 <sup>n</sup> eta 14 <sup>n</sup> .    | } | Buruilako 16 <sup>n</sup> , 18 <sup>n</sup> eta 19 <sup>n</sup> . |
| Arramaiazeko 10 <sup>n</sup> , 12 <sup>n</sup> eta 13 <sup>n</sup> . |   | Abentuko 16 <sup>n</sup> , 18 <sup>n</sup> eta 19 <sup>n</sup> .  |


### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhuntze osoa, ourtharila 3<sup>an</sup>, Uskal Herrian ikhousiren eztena. — Arramaiatze 28<sup>an</sup>, beste ekhi ulhuntzebat ; pharte ikhousiko die Uskal Herrian. — Ekhi ulhuntze osobat orano abentu 22<sup>an</sup> eta 23<sup>an</sup> ; bena ezte ikhousiko goure Herrian.







## HANITCH KHASU HOUNI



**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigarren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Bostgerren arraldia aorthen hasten.



## ERRAN ZAHAR



Handikeria lilitzen bada ere, ezta bihitzen.

Haorrak athian diana erasi, sukhaltian zian ikhasi.


Hire nahiz heltzen zaikan gaitz horri errok hounki jin.

Hitz ichila (edo kochelia) hirour beharritan igaranez geroz, orotara lasterka dabila.

Hobe da nagi edo aoher egoitia eziez gaichki egitia.

Hobe da berant eziez behinere.

Hobe da galdu eziez galdiago.



Haboro daki erhoak bere etchian, eziez zuhurak besterenian.

Horekin datzana, jeikite da kukusoekin.

Huts eginian tink egoitia da berritan huts egitia.

Ihabalia nouiz ere ihabaliarekin aharratzen beita, lehenik joiliak duke garhaita.

Ichil dagoenak eztio gezurrik.

Ihardetsi houn bat erran gaichtobati, guti khos-tada, hanitch balio dianagatik.

Jinkoak didala behazale bezala adizale.

Jinkoaganik ukhenago dena, zordunago da.

Jokhatzia oro gal, da mando hilarekin ehorztia arbalda.

Laster bildia, laster barreiatia.

Latsari hounari eztakezaio huts egin latsa harria.

Lechantzuko tonborrariari urhe bi joiteko, sei ichil erazteko.

Mahañian errana bego gorderik dahallan.

Mandatari hotza, berant abia, baratch joan, eta utzuli hutsa.

Mihi gaichtoari alkhatia urkhari.


Min bilha dabila gudukara doena azkarragoarekila.

Mintza bite gutzaz zehar, eta bira goure behar.



OURTHARILA


Egunak luzatzen dira oren batez.




- ⊙ a. b., 3<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 5<sup>m</sup>.
- ⊕ l. l., 10<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 2<sup>m</sup>.
- ⊖ a. o., 18<sup>n</sup>, arrastiriko 1<sup>or</sup> eta 4<sup>m</sup>.
- ⊗ a. l., 26<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 10<sup>m</sup>.

BARANTHAILA


Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- ⊙ a. b., 2<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 4<sup>m</sup>.
- ⊕ l. l., 9<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 3<sup>m</sup>.
- ⊖ a. o., 17<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 1<sup>m</sup>.
- ⊗ a. l., 25<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 3<sup>m</sup>.



|                      |                        |                     |                      |
|----------------------|------------------------|---------------------|----------------------|
| 1 Astizken.          | ZIRKONZISION           | 1 Neskanegun.       | s. Inazio.           |
| 2 Ostegun.           | s. Makaire.            | 2 <b>Igante.</b> 4. | KHANDERALLU          |
| 3 Ostirale.          | sa Jenevieva.          | 3 Astelehen.        | s. Blasi.            |
| 4 Neskanegun.        | sa Fausta.             | 4 Asteharte.        | sa Jana, Val.        |
| 5 <b>Igante.</b>     | sa <i>Amelia.</i>      | 5 Astizken.         | sa Agata.            |
| 6 Astelehen.         | APHARIZIO.             | 6 Ostegun.          | s. Aman.             |
| 7 Asteharte.         | sa Melania.            | 7 Ostirale.         | s. Romual.           |
| 8 Astizken.          | s. Luzien.             | 8 Neskanegun.       | s. Johane Mat.       |
| 9 Ostegun.           | s. Julien.             | 9 <b>Igante.</b> 5. | sa <i>Apolina.</i>   |
| 10 Ostirale.         | s. Marzien.            | 10 Astelenen.       | sa Eskolaztika.      |
| 11 Neskanegun.       | s. Teodoso.            | 11 Asteharte.       | A B. Lourdakoa       |
| 12 <b>Igante.</b> 1. | sa <i>Taxiena.</i>     | 12 Astizken.        | s. Tita.             |
| 13 Astelehen.        | s. Leonze.             | 13 Ostegun.         | s. Jilbert.          |
| 14 Asteharte.        | sa Hilera.             | 14 Ostirale.        | s. Valenti.          |
| 15 Astizken.         | s. Phaole, erm.        | 15 Neskanegun.      | s. Faosti.           |
| 16 Ostegun.          | s. Marzel.             | 16 <b>Igante.</b>   | <i>Setuajesimo.</i>  |
| 17 Ostirale.         | s. Antoni.             | 17 Astelehen.       | sa Hiji.             |
| 18 Neskanegun.       | J. Phetir. Err. Jartia | 18 Asteharte.       | s. Flavieñ.          |
| 19 <b>Igante.</b> 2. | s. <i>Kanut.</i>       | 19 Astizken.        | s. Konrad.           |
| 20 Astelehen.        | s. Fabien eta Sebast.  | 20 Ostegun.         | s. Eucher.           |
| 21 Asteharte.        | sa Añes.               | 21 Ostirale.        | s. Pepeñ.            |
| 22 Astizken.         | s. Bizente.            | 22 Neskanegun.      | J. Petir. Ant. Jart. |
| 23 Ostegun.          | <i>A. B. Ezkountz</i>  | 23 <b>Igante.</b>   | <i>Setsajesimo.</i>  |
| 24 Ostirale.         | s. Timote.             | 24 Astelehen.       | s. Dosite.           |
| 25 Neskanegun.       | J. Phaoler. kon.       | 25 Asteharte.       | J. MATHIAS, ap.      |
| 26 <b>Igante.</b> 3. | s. <i>Polykarpe.</i>   | 26 Astizken.        | s. Zezaire.          |
| 27 Astelehen.        | s. Johane Kris         | 27 Ostegun.         | sa Batilda.          |
| 28 Asteharte.        | s. Amadeo              | 28 Ostirale.        | sa Onorina.          |
| 29 Astizken.         | s. Franz. Sal.         | 29 Neskanegun.      | s. Rufi.             |
| 30 Ostegun.          | sa Martina.            |                     |                      |
| 31 Ostirale.         | s. Petiri Nol.         |                     |                      |



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.

\*\*\*


- ☉ a. b., 2<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 6<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 9<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 5<sup>1m</sup>.
- ☿ a. o., 18<sup>n</sup>, gaiko 2<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.
- ♁ a. l., 25<sup>n</sup>, gaiherdi eta 41<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.

\*\*\*

- ☉ a. b., 1<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 11<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 8<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 41<sup>m</sup>.
- ☿ a. o., 16<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 4<sup>m</sup>.
- ♁ a. l., 23<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 16<sup>m</sup>.
- ☉ a. b., 30<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 42<sup>m</sup>.




- |    |                      |                            |
|----|----------------------|----------------------------|
| 1  | <b>Ig. Kinkajes.</b> | s. LEON, Baion.            |
| 2  | Astelehen.           | s. Zinplize.               |
| 3  | Asteharte.           | s <sup>a</sup> Kunegonda.  |
| 4  | Astizken.            | HAOSTE.                    |
| 5  | Ostegun.             | s. Luperkule.              |
| 6  | Ostirale.            | Elhorr. Khor.              |
| 7  | Neskanegun.          | s. Tomas Akin.             |
| 8  | <b>Igante.</b>       | GOROZUM. 1 <sup>a</sup> .  |
| 9  | Astelehen.           | s <sup>a</sup> Frantzesa.  |
| 10 | Asteharte.           | 40 Martirak.               |
| 11 | Ast. IV. Th. B.      | s. Konstanti.              |
| 12 | Ostegun.             | s. Greg. hand              |
| 13 | Ost. IV Th. B.       | J. K. Lantza eta I.        |
| 14 | Nesk. IV Th. B.      | s <sup>a</sup> Matilda.    |
| 15 | <b>Igante.</b>       | Gorozumako, 2 <sup>a</sup> |
| 16 | Astelehen.           | s. Ziriaka.                |
| 17 | Asteharte.           | s. Patrik.                 |
| 18 | Astizken.            | J. Gabriel. ark.           |
| 19 | Ostegun.             | s. JUSEF.                  |
| 20 | Ostirale.            | Suario s <sup>a</sup> .    |
| 21 | Neskanegun.          | s. Benedit.                |
| 22 | <b>Igante.</b>       | Gorozumako, 3 <sup>a</sup> |
| 23 | Astelehen.           | s <sup>a</sup> Pelajia.    |
| 24 | Asteharte.           | s. Agapit.                 |
| 25 | Astizken.            | A.D.M ANONTZ.              |
| 26 | Ostegun.             | s. Braolio.                |
| 27 | Ostirale.            | J. K. Zaoriak.             |
| 28 | Neskanegun.          | s. Justeñ.                 |
| 29 | <b>Igante.</b>       | Gorozumako, 4 <sup>a</sup> |
| 30 | Astelehen.           | s. Amadeo.                 |
| 31 | Asteharte.           | s <sup>a</sup> Balbina.    |

- |    |                   |                            |
|----|-------------------|----------------------------|
| 1  | Astizken.         | s. Huges.                  |
| 2  | Ostegun.          | s. Frantzes P.             |
| 3  | Ostirale.         | J.K.Odol Prez.             |
| 4  | Neskanegun.       | s. Isidro, Apk.            |
| 5  | <b>Igante.</b>    | PASIONIA.                  |
| 6  | Astelehen.        | s. Sisto.                  |
| 7  | Asteharte.        | s. Herman.                 |
| 8  | Astizken.         | s. Albert.                 |
| 9  | Ostegun.          | s. Akazio.                 |
| 10 | Ostirale.         | A. B. Dolor.               |
| 11 | Neskanegun.       | s. Leon hand.              |
| 12 | <b>Igante.</b>    | ERRAMU.                    |
| 13 | Astelehen.        | s <sup>a</sup> Ermenegild. |
| 14 | Asteharte.        | s. Justeñ.                 |
| 15 | Astizken.         | s <sup>a</sup> Anasztasia. |
| 16 | Ostegun.          | Osteg. Saintu.             |
| 17 | Ostirale.         | Ostir. Saintu.             |
| 18 | Neskanegun.       | Neskan. Saintu.            |
| 19 | <b>Igante.</b>    | BAZKO.                     |
| 20 | Astelehen.        | s. Teotimo.                |
| 21 | Asteharte.        | s. Anzelmo.                |
| 22 | Astizken.         | s. Suter eta Kaio.         |
| 23 | Ostegun.          | s. Jorji.                  |
| 24 | Ostirale.         | s. Zerazi.                 |
| 25 | Neskanegun.       | J. MARK, Eb.               |
| 26 | <b>Igante.</b> 1. | s. Klet & Marz.            |
| 27 | Astelehen.        | s. Zerazio.                |
| 28 | Asteharte.        | J. Phaole, K.              |
| 29 | Astizken.         | s. Petiri, m.              |
| 30 | Ostegun.          | s <sup>a</sup> Katalina.   |



## HAMABOST MILA LIBERA



**G**ZDUTIE Altzurukutar laborari batek, bere eskalanpouen barnen, ez eta Sorhutar espartinero batek, zola egiteko phountchou phuntan edireiten hamabost mila libera soldata ourthian ; horrek egiten beitu berrogeita bat libera eguneko, ala igante, ala astegun. Horra hatik zer irabaziak, beren burientako, goure deputatiek eta zenaturek ezari dutien. Uduriz, aitzinetik ez ziela aski bederatzura mila liberarekin, orai eraikiko die ourthe oroz seia mila libera haboro. Hortarik, goure legarrek badukie, ourthe oroz, bost miliou eta bost ehun mila liberatako emendio berribat.

Ikhousi die, lege egilek, Frantziako jentia ekharirik zela, utsutuki, buhurtzeko gogorik ere gabe, lege ororen houn hartzera. Eta legia lege delakoan, egin die lege bat, goure sosen beren sakoletarat biltzeko, gogoan eroaiten zielarik eta ez arrazouik gabe : « Lege hori iretseraz dezagula, fraiden, seroren, aphezen eta errelijioniaren kontre egin tugun legiak iretserazi tugun bezala. Zertako ez, ezteia bethi legia lege? »

Holako egitate batek *lege* izena beno merechiago luke *bouhamekeria* izena ; bena, guk nahi ala ez, legia da, eta hora egari behar dugu, beste gisako lege egile elibat bozketan gihaurek eta Frantziako botz emailek izenta artino.

Eta zer phuntia haitatu beitie beren phakien emen-

datzeko? Laborariak ukhen dian ourthe gaistoenetarik bat, nouiz eta bere eta familiaren ogia, hala noula aberen bizigarria, eskazegi beitzutian. Bena, ountsa foutitzen dira goure deputatu eta zenaturrak, goure botzak ukhenez geroztik, berak ountsa diren ber, guk familiaren hazteko zor eginik ere, goure kabaliak gosez hilik ere.

Guk badutugu ourthe gaistoak, hounak beno segurago ; arduran sos guti egiten ; aldiz, legarrak bardin handi, etchenko gastiak tchipitzen beno aisago emendatzen. Goure lege egilek eztie ourthe gaistorik batere ; batere izertu gabe sosaren eraikitia aski die.

Phaku eder horrez beste, bidajiak egiten dutie kitorik Frantzia guzian, ourthe orotan, burduñ bide-tan, lehen lehen klasako boturetari ; nahi diren lek-hietarat kitorik paseiatzen dira. Khanberetan ere, badutie, kitorik, gosiaren eta egarriaren ematzeko, janhari eta edari elibat, ezpeitira, hullan ere, laborarien phastetchak eta ferretako edaria uduri.

Eta orai, goure Errepublikak bere lege egile erregetchoupitak hañ ountsa phakatzen dutian denboran, nahi duzieia jakin zer khostatzen diren deputatu eta zenaturrak beste nazione zounbaitetan ? Goure nazione lehen aizo direnetan ? Houna : *Beljikan* ourthian lau mila libera, hameka libera eguneko, bidajiak kitorik ; *Alamañan* : hirour mila, zazpi ehun eta berrogei eta hamar libera ourthian ; hamarbat libera eguneko ; bidajiak kitorik ; *Suizan* : hogeitau libera eguneko, khanberak bildurik direnian berbera ! hantik kanpo batere phakurik. Bidaje bat berbera juntatu behar diren lekhi alajoaitek kitorik die ; *Italian* eta *Españan* aldiz, beren lana lege egilek egiten die *urririk* manechak dioien bezala ; eztira deusere khostatzen populari. Berbera, bidajiak bestek bene merkiago egiteko zuzena badie beren kargiari esker.

Eta orano bada beste gaiza bat : nazione haietan




lege egilen nounbria tchipiago da eziez eta Frantzian.

Horik oro hola, deusere ezkiniroke erran, goure deputatu eta zenaturek lege hounik egin baleze... Bena Frantziaren nahastiaren truku, errelijioniari eta goure mousari egiten dien damiaren truku goure sakolatik ukhen dezen ourthe bakhotch hamabosna mila libera! Ez zaizieia uduri, Alzurukutar laborariak eta *Sohutar* espartineroak, merechiago lukiela bia ostikata eskalanpouekin edo phountchou tchista bedera, ez sobera barnegi hatik, bizkar zolan emanik? Bai, diozieia? Nik diot ez. Gogo hounez enphara leitezke, goure lege egiliak, holako balaku subertier, berriz deputatu edo zenatur igaraiteko aski balitz.

Sendigarriki letzioniaren emaiteko-bide bakhoitza da, bozkak jiten direnian, nourk bere botzaren oraiko lege tzarren aldekoer ez behinere emaitia.



## ZER IRAKOURTZEN DUGU ?



1° *Gaseta gaichtoak*. — Frantziako izkiribaño kataliko batek zioan egun batez : « Luma esku theiu batziek erabilirik dena, horra puñaletan den orotako zorrotzena eta phouzouetan den borthitzena eta azkarrena ». Aphez kupu handi batek erran du bere gaintitik : Populu bat segidan jinek ere elizetako pheredikier behatzera ; populu hora, munduko, errelijio iari hobekienik etchekitzen den populia balitz ere, ezpaleza irakour kasete gaistorik baizik, hoge eta hamar ourtheren buruko, pupulu hora osoki sinhesterik gabe jar leiteke, nihouren gehien-goarik egari nahi eluke ».

Eta hori bichtan da ; hori, nourk goure herrietan beretan borogutzen ehi dugun egia bat da. Eia, eia, zer errelijione dien, kaseta gaistoa zortzi oroz ezpada, egunguziez irakourten dienek, eta kaseta gaistoa baizik irakourten eztienek? Ezpeitira aski eskolaturik errelijioniaren gañen, bere beithaz buhurtzeko kaseta gaistoaren erakaspener, emeki emeki sinhestia tchipitzen zaie, achaletiko errelijione bat baizik ez zaie baratzen, eta ezpalitze ikhous beren herritar lagunak mezaren entzutera, bezperatarat, kofesatzera, komuniatzera joaiten, egon leitezke etchen, gogotik, batere elizan zankhorik sarthu gabe.

Nahi beilukie estakurubat ukhen, berak ez jarraitzeko errelijioniak manhatzen dutian eginbider, beren estatuko berthuter, nahi beilutukie bethe beren gogoko, bihotzeko eta khorpitzeko plazer galthoak, iresten dutie goustian, kasetak, kasik igante oroz, aiphatzen deitzen alegia nounbaitko aphez, fraide edo serora zounbaiten eskandal framazouek gogatiak, nihounere agitu eztirenak, eta ekharririk dira beren burier deusen ere ez arrafusatzera. Holako arimen galbide handiari buruz, Frantziako jaun aphezakupiak zinez arrankuraturik dira ahal oroz buhurtzeko ; alde batetik, laguntuz eta gomendatuz kaseta hounak ; beste aldetik, Elizaren erakaspentak emanek katoliko houn izan nahi direnen kontzentzien argitzeko.

Houna Parise ondoko aphezkupu batek zer dion gaseta gaistoen gañen bere diozesari igorri letera batetan : 1° Debetaturik da katolikoer, gaseta gaisto bati abonamentiaren phakatzia bai berentako, bai nour nahientako ; besteñiz ogendant ezar litzakie beren buriak, gaseta harek gogoetan eta bihotzetan egiten dutian damu izigarriez. 2° Debetaturik da katolikoer, gaseta gaisto baten erostia eta irakourtia, noun ezten gaseta haren erranen gezurtatzeko eta errelijioniaren kontreko akusazionen egoisteko. Bes-

teñiz irakourzalia jarten da bere arimari zinez ogen egiteko eta Jinkoaren hanitch ofentsatzeko menian. 3° Debetaturik da katolikoer, edo ezacholkeriaz, edo bere nahiz, gaseta gaisto baten noun nahi eiztia etchenko nourbaitek hatzemaiteko menian ; besteñiz ogendant jarten dira gaseta harek beren etchenkoen arimer egin liron damiaz. 4° Debetaturik da katolikoer, gaseta gaistoaren zer nahi gisaz laguntzia, edo hari berri igortez edo haren saltzez, edo haren igarneraztez bater bester. 5° Debetaturik da katolikoer, gaseta gaisto baten irakourtziari beha egoitia, erakoutsu gabe eztela houn edukiten gaseta gaistoaren errana, errelijioniaren kontre edo ounestatiaren kontre gaseta mintzo denian. Horra zer gisaz mintzo den Frantziako aphezakupi argitienetarik bat.

Eta, urhentzian, eman dezagula irakourzale khiris-tien sinhespena deitzen ahal duguna, 12 artikulutan : 1° Sinhesten dut, irakourtzia dela arimaren chuchen edo gaizki ebilerazteko hazkurria, eta gizona bere jakitakiak egiten dian bezalako dela ; 2° Sinhesten dut, gizonaren gogoaren trempia bilhatzen dela, hartzen dian hazkurriaren araberako, khorpitzaren trempia bezala ; 3° Sinhesten dut, irakourtziak, segidan eginik balinbada, gogorik azkarrena khanbiatzen ahal diala ; 4° Sinhesten dut, gaseta edo liburu gais-toak adichkide phozoatu eta phozoazale elibat direla ; 5° Sinhesten dut, irakourtze gaistoek hainbeste ogen egiten diela arimer, noula phozouak khorpitzer ; 6° Sinhesten dut, irakourtze haiek gizonaren biziari idokitzen diela bere zuhurtarzuna, haren bihotzari bere garbitarzuna, haren boronthatiari bere indarra ; 7° Sinhesten dut, hanitch persouna ilusionian direla eginez edo utziz beren pekoer, holako irakourtzerik egitera ; 8° Sinhesten dut, holako irakourtziak egitera eizten dutienak, edo berek laguntzen, manhatzen edo aholkatzen dutienak, hanitch ogendun jarten direla Jinkoaren aitzinian, Jinkoaren etsaier eskia

emaiten dielako; 9° Sinhesten dut, hiltzeko orenian, hanitch arimen ilusioniak, irakourtze eginer buruz, eroriko direla, eta saldo baten, berantegi datekiala; 10° Sinhesten dut, ikhous ahal bagintza irakourtze gaistoek galerazi dutien arimen saldo handiak, iziturik ginatekila haien nounbriaz; 11° Sinhesten dut, kaseta eta liburu gaistoak mintza ahal balite irakourzalen gogoetan eta bihotzetan ezari dutien herecha galgarriez, haien jakilegoa lotsagarri lizatekiala; 12° Sinhesten dut, katoliko batek eziala behar irakourtu liburu edo kaseta gaistorik; bere sosa galduko diala halakorik erosiz, hala hala, bere denbora, bere gogoia, bere arima, hourak irakourriz; eta halakorik balinbadu bere etchen, eginbide hersia diala haien suialat lehen beno lehen ourthoukitiak.

Zounbait errejentek igaranerazi gasetak irakourtu dutien laborariek, ountsa eginen die phausuki artikulu hounen irakourriz eta arraberriz irakourriz. Segur beren arimen phozoazale kasetak eta hen eskentzaliak hurrun ethekiko dutie.

2° *Gaseta hounak*. Egunko egunian, aski egiten dieia, katolikoek, egonez kaseta gaichtorik irakourtu gabe? Ez, behar dutie irakouri eta irakour-erasi, gaseta hounak; eta hortakoz hourak bethi erosi sosari dolu egin gabe. Behar dutie orano laguntu, haier berriak heleraziz, beren herrian zerbait berriago agitzen denian.

Egunko egunian, gerla handi bat phizturik da ountsaren eta gaizkiaren artian, egiaren eta gezurra-  
ren artian, chuchenaren eta okherraren artian; eta kaseta hounak dira ountsaren, egiaren eta chuchenaren soldadoak. Gerla horren irabaztetik edo galtzetik, jinen da, goure artian errelijionaren eta familiaren beren erro sakratu eta zaharretan chutik egoitia edo orozbatkoz emeki emeki ourthoukirik

izateko gisan, khordokaturik izatia. Eta, noula gerlan den soldadoari bizigarri eta munizionen emaitako, ezpeitu ihourk ere herabe, kaseta hounari ere ihourk, bere erreligioniaz eta bere familiaz arrankurarik babilbadu, zor deio bizigarriaren eta munizionen segurtatzia : hori eginen du gaseta houna bethi, segidan, erostez eta, hari, gorago aiphatu lagungoak emanaz. Zounbat sos eztira joaiten, batere beharrik gabe, igante guziez, merkhatu egun guziez; aldiz sos bat ezariz kaseta hounaren erosteko, ez nouiztarik nouiztara, bena igante oroz, ezta mousa praobetzen; aldiz, eramaiten da etcherat, nourk beretako eta beste etchenkoentako, adiskide bat bethi zuhurki mintzatu tuko dena eta oraiko demboretako nahaskerietan eta ulhunpetan argi emanen diana.

Aita Saintu Léon XIII zenak, aspalditik ezaguterazian, mundiari, zounbat gaiza beharra den gaseta hounak izan ditian : houna haren erranak : « Badira zounbait jente erraiten beitie hobe dela, etsaiari, photerian eta azkar denian, ez buruz buru buhurtzia, beldurrez eta sobera khechaeraz dadin. Hola mintzazaliak Elizaren althe ala kontra othe dira? Eztaite erran ahal; ezi, gainti batetik, erraiten die dotrina katolikoa pratikatzen diela; eta, ber demboran, nahi lukie Elizak utzi ditzan gezurtatu gabe dotrina horren galerazteko mundian dabilzan beste dotrina galgarri elibat. Plañuz ari dira, zeren erreligionia tchipitzez beitoa, zeren jenten konduta geroago eta tzartzenago beita, bena, holako miner, ezte nahi sendagallurik eman; eta, arduran, horrez beraz, min haien hedatziaren eta emendatziaren ogendant jarten dira. »

Eta noun dira sendagalliak? Bat edireiten da eta ez tchipiena, gaseta hounetan. Bego orano Aita saintu Léon XIII zena mintzatzera : « Behar luke eta salbagarri lizate, nazione oratako kartiel bakhotchak ukhen ditzan bere gaseta berheziak; haietan begiraturik eta

defendaturik izan ditian althariaren et suthondoaren zuzenak; eta gaseta haiek behar lukie izan bethi kartieleko aphezakupiaren gogoko, harekila batian, erreligionaren eta familiaren entresen erortetik eta galtzetik begiratzeko gisan. » Frantziako jaun aphezkupiek ere zinez gomendatzen dutie kaseta hounak. Haita ditzagun bizpahirouren erranak. Zinez jakitantz zen eta hanitch liburu ederrak egin dutian aphezku-pubatek dio :

« Gaseta gaistoari behar da buhurtu gaseta hounaz; gaseta hounak behar du hullantik jarraiki gaistoari, hari idoki hartu dian naousigoa, haren gezurren eta okherrerien aitzinian ezari egia eta zuzena; gaseta hounak behar ditu ereñ arimetan, berthutiaren azi salbagarriak; khentzen dutialarik enjogidura tzarren su borthitzak, gaseta gaistoek hazten eta azkartzen dutienak. »


Beste batek ezaguterazi ondoan gaseta gaistoek zutiela sobera lekhutan elizak hutserazten eta jenten konduta khiristia tzarkerialat khanbiatzen, erraiten du, igaran gorozumako leteran : « Goure indarkarik handienak egin behar guntian, gaseta gaistoer buhurtzeko; eta, zer nahi sakrifizioen khostuz laguntu behar guntian kaseta hounak. Hala egin othe dugia?

Ezta khiristi houn bat ezachol izaten ahal, orai, gaseten eretzian, gasetek dielakoz hedadura eta indar handi bat. Bi eginbide badira, gaiza horri buruz, bata, debetu bat, bestia, manu bat. Behar duzie zien ganik eta zien pekoen ganik hurrun etchekei gaseta gaistoa. Haren erostia, hari abonatzia, hari lagungoa egitia eta geroztik haren althe jartia, da harek egiten dian damian ogendant izatia. Haren irakourtzia da phozouaren irestia, bere buriaren chaite suerte bat bezala, arimako bizi az aiphu. Haren uztia zien hurren edo etchenkoen eskietan, da, bethi arimaz aiphu, haurrer eta beste etchenkoer herioaren emaitia. Horra debetia. Bena baduzie beste eginbide bat, manu bat


ororentako eginik dena, egunko egunian, nahi bada baten haborochiago, besten gutichiago: behar duzie laguntu eta barreiatu gaseta houna. Eginbide hori betheko duzie gasetahouna erosiz, haren hedatzeko diharu sakrifizio eginez, ahala balinbaduzie, eta, orano gaseta hounari artikulu edo berri igortez. » Eta aitzinachiago erraiten du : Nourk ere ukhen beitu hortarako dohaña, behar diala izkiribatu gaseta hounetan, zerbutchatzen delarik bere lumaz, ezpata zorrotz batez bezala, errelijioniaren eta ordre hounaren defendatzia gatik.

Urhentzian, aipha dezagula goure Jaon Aphezkupia, eta nahi bada haren elhiak sarkorki entzun dutugun irakourten goure elizetan, hobe date, nouiz nahi arrairakourteko heñian ukhen ditzagun : « Bai, dio, gaseta gaistoek damu handia egiten die bazterretan, arimak galeraziz, Jesu-Kristen kontre eta Elizaren kontre bourhaou eginez. Bena noui esker bizi dira gaseta gaichtoak ? Noui esker ? Katolikoer esker, haiek beitutie erosten, irakourtzen, eizten beren etchetan sartzera eta irakourtzera, kasurik egin gabe holako irakourtzek bihotzak hirotzen eta gogoak okherrialat buhurtzen deitzela. Katolikoek nahi balie, kaseta gaistoak ezaba leitezke irakourzalen eskazegiz. Bai, gaseta tzarrek zer nahi gaichtokeria eta gezur barreiatzen dutie Aita saintiaren, aphezkupien eta aphezen kontre. Bena, zounbat katoliko eztira, ichil beitagotza holako gaistokerien eta gezurren aitzinian, ezdutielatoz irakourten gaseta hounak, ikhas beiliroie haietarik egiaren behar den bezala eta behar den lekhian arra eraikiten ? » Aita Saintien eta Aphezkupien erranak ountsa phezaturik dira; berthute handiko eta jakitate hedatieneka gizonek gogaturik eta emanik dira. Sustenga ditzagula arren gaseta hounak; errelijioniaren kontre, familiaren izate ounestaren kontre, goure entres baliou senen kontre phizturik den gerla izigarri hountan, garhaitaren

erazletarik bat, erazle gehienetarik bat, hau da :  
Gaseta hounari gisa oioz eta thai gabe lagungoa  
emaitia.



## DAIGUN MAIATZEKO BOZKAK



**D**AGUN maiatzian izanen dira Frantzia guzian  
herrietako kontsellu ororen arraberrizia.  
Behinere beno seriousago dirateke bozkatze  
horik, denborak diren bezalako direlako ere.

Gibel sobat egin, eta zounbat gerthakari eztira  
ikhouston azken laor ourthe hoietan ; eta, herri zoun-  
baitetako kontselliak eta merak Uskaldun eta khiristi  
agertu balinbadira ere, ez direia beste herri zounbait,  
hietetan errelijioniaren eretzian eta Elizaren houn-  
tarzun sakratien eretzian kontselliak, behatu beitira  
errejentari, zakielarik errejenta gobernamentu ou-  
houñ eta hastiogarri hounen gizona zela? Zer egin  
die holako kontselliek berheziki elizari buruz eta  
aphezaren etchiari buruz ?

Gizon agertu nahi izan baziren, gibelerazten zien  
prefeta eta prefetareki gobernamentia, erranez  
azkarki, etziela nahi kondizione berririk, aphezaren  
eta errelijioniaren entresen kontre beno segurrago,  
beren herritarren entresen kontre beitzoatzen kon-  
dizione hourak. Jaon errejentak, hora beitzen orai  
artino grefier eta herriko gizonen, sudurretik, berari  
ountsa jiten zeion gaintialat eroaile, eman deie  
aholku gobernamentiaren althe, framazouen althe,  
aritzeko ; eta kontsellu haiek cherkhatu die errejent  
grefierrari ountsa jiten zeron, herritarren eta erre-  
lijioniaren entresa beno lehen.



Azken laor ourthe hoietan izan dira, goure departamentian, zenatur bozkatze, bi aldi. Lehen aldian, izentaturik izan da M. Catalogne oraiko lege tzarren ororen egile edo sustengazale bethi izan dena. Nourk du ogena, holako lege egile bat balinbada Zenatian? Kontselliek, haiek haitatu beitutie holako jaon bat lege egile ezari dien delegatiak.

Ikhouston duk, langile edo laborari ziberoutarra, eztela noulako nahiko gaiza, herriko kontselluko gizonen haitatzia. Balin bahu mithil baten beharra, etchezañ edo afermier elibaten beharra, arhinki egin hiroua hire haitia? Ehintzatekia nahi segurtatu, aitzinetik, eia eskenturik zaizkan mithilgei edo etchezañgei haiek, merechi dien, bai ala ez, hire entresen eskietan ezaririk ukheitia? Arren, arrazou handia-goekin, begi egin behar duk, nour haitatzen dian, herriko entresez kargatzeko; zer diot herriko, erran behar nitek Frantzia guziko entresez kargatzeko; ezi, hour tchipiek, algargana juntaturik, hour handiak egiten dutien bezala, hala hala herri orotako kontselliek, algargana juntaturik, haitatzen ditiek senadoriak, lege-egiliak, legia gainti hounialat hala noula gaistoalat unguratzen ahal dienak, Frantzia guziaren hounetan edo galzetan.

Bai, begi egin ezak, botz emaile hizan langilia edo laboraria; kasu nouri botza emaiten dian! Erran ezak aitzinetik hire buriari: Nik izentatuko tudan kontsellerrek, laor ourthez, beren eskietan dutukie herriko entresak eni esker: eta, hortakoz, haiek eginen dien lanetan nik ere baduket ene phartia. Herriaren entresak gaizki erabilten badutie, nik dutuket gaizki erabili; egiten balinbadie okherreriarik, injustiziarik, nik egin dutuzket; Nourbaiti damu egiten balinbadie, legarrak emendatzen balinbadutie, errelijonia, elizaren hountarzunak, aphezak, gaizki erabilten badutie, ni nizate ogendanta, ene botzak beiteikeie eman hola egiteko indarra; Senadoren

bozkak, laor ourthe hoietan agituko beitira, kontsellerrek haitatu delegatiek izentatzen balinbadutie senadore gaistoak, nik ere baduket ene ogen phartia senadore haiek eginen dutukien lege gaichtoetan.


Beste bozketan edo kantonadakoetan edo deputatienetan, nik izentatu kontsellerrek, beren kargiari esker, igaranerazten balinbadutie arrondissementuko kontseller bezala, edo deputatu bezala, oraiko gobernazale framazouen gaintikoak, ni nizala kaosa hola agituko da.

Hitz batez erraitera : Nik izentatu kontsellerrek trabatu dukien obra houna nik duket trabatu ; haiek egin dukien damia edo gaizkia nik duket egin. Deussek ere ezteiket idokitzen ahal, haiek, nik eman deikedan kargiaren izenian, erranen edo sinatuko edo eginen dutien gaizetan, hartu dukedan phartia ; pharte harez khountu zor duket ene herriari, ene kontzentziari eta ene Jinkoari.


Oraidanik phentsamentuka hadi, botz emaile ziberotarra ; botzka egunaren ondotik eztukek ordu. Eta, phentsamentukatu faltan, hire haitiaz ezarten balinbatuk herriaren buru, herriaren entresak gaizki erabiliko dutien gizonak, hanbat gaichto hiretako ; laor ourthez phezaturen zaik, kontzentziaren gañen, kontseller gaichto elibaten haitatzian egin dukekan gaizkia eta ukhen dukekan ogena.

Behinere beno ageriago duk orai zouñ aldetarat botza eman behar dian. Ikhous ezak hire herriko kontseller igaran nahi direnak nourekin antzakatzen diren Maole hortan, Atharratse hortan, merkhatu egunez ; ikhousezak houlako edo halako jaunari, kargulantari, berheziki errejentari, noula behatzen diren ; badakienez egiazko gizon eta egiazko Uskaldun izaten, hortako fera-foutre igorriz, behar denian, errejenteria eta kargulanteria guzia ; ikhousezak eia zer kaseta irakourten dien, agerian edo izilka ; sogin ezak haien urhatsak noulako diren khiristi eginbide-

tan ; eta, ahal bezañ ountsa hire kontzentzia argiturik, ordian, eman ezak hire botza, ihouri ere hire buria sos truku, edo edari, edo aseka truku saldu gabe.



## LABORANTCHAZ



### I. — Scories edo grisa sorhoentako.

**H**ANITCHKO gaiza berhezten da « gris » izeneko hounkallu arrotzian ; bena eztira oro ber balioko. Bi baliousenak, eta handizki : *acide phosphorique* delakoua eta *latsuna*. Bi horietarikarraouena : lehena. Latsun, gihaurek ere egiten dugu.

*Acide phosphorique* guti, haboro haboro lurretan, lur zaharretan berheziki ; guti ja, zaiñek hartzeko gisan. Batere kasi sokharrouan, hariña lurrian, buztanlurrian. Lur gizenenak ere, gozo hortarik praubetzez badouatza. Gorotzak arra utzul beno haboro, idokiten, deie belhar zaiñek ; aberen ezurretarat khambiatzen da pharte houn bat. Bihiak ere holako mengoua dira.

Orok dakiguna da, sohuetan badela belhar muta hanitch. Eztira oro bardin indartsu, bardin houn. Hoberen ezagutietarik : ardi mihia, urzo belharra eta treflakentiak.

Belharrak oro bizi jatez, beste bizizaliak bezala. Gozo suberte hanitch beretzen die ; bene etzaitze oro bardin houn. Zouin da belhar hoberen horiek maitenik dien gozoua ? *Acide phosphorique* deitzen dena. Halako hereintto bat gabe, eztitake bizi. Zerk salhatzen du gozo horren gabezia, edo berere eskazunia ?

Huchtu belharrak, ilharriak, oroldiak. Beste zombaitak ere.

*Scories* erhautsetik barrea dadiala soho mehe batetan, bertan khambiatzen da belharraren muta ; gorachiago aiphatu belharretarik agertzen da. Ezta hatik ouste ukhen behar erosizko erhautsian badela belhar azi. Ez, erhauts horrek lurrian, jateko eskazez, inkantaturik bezala ziren belhar aziak, iratzar erazten dutu : jateko maitenik direnetik deie emaiten : *acide phosphorique*.

Houkallu horrek jin erasi belharrak, aberer ezur egin-erazten du, aragi ere bai. Urso belhar, ardi mihi eta treflak, *grisian* den gozo baliousari esker iratzarri ondouan, handitziareki aidiari *azote* izeneko gozotik ountsatto jesaiten die, hartzen berek behar diena ausarki.

Gozo hori da aldiz, aragi egin-erazlerik handiena. Behar dien beno haboro ere biltzen die ; lurrari harerazten soberakina. Khario, *azote* izeneko houkallia : 30 sosez goiti egiten du kilouak.

Gozo baliousa arren, *grisian* erosten duguna. Khambiatzen, hountzen du belhar muta ; belhar gachtouen lekhia, houner har-erasten ; aberer borogu eragiten ; azkartzen gorotza ; lurra bera gizenterazten, berak handi-erazten dutian belharrez, *khario* izeneko houkallietan erosten den gozo ou tsatto behera igaran-eraztez.

*Chouria* ala *grisa*, zouin sohoentako hobe othe dira ? Bietan ber gozotik, *acide phosphorique* deitzen denetik, dugu erosten : hamar kiloetarik hamaseietara zakukal ; zakiari etchekara den paper ttipi batek erraiten du zombat den barnen. *Chouria* ala *grisa*, zouin hobe diren galthatzen dugunian, ber *acide phosphorique* pheziaz mintzo gira. Gaiza segurra da, *chouri* hamasei kilo dunak, belhar haboro eman eraziren diala eziz eta hamar kilo baizik eztian *grisak*.

« Chouriak » eta « grisak », biek batudie beren

hoununiak, Zouñenak buruzagi? Grisarenak hanitchko ikhertzen arabera. « Chouriak » *grisak* beno bertanago emaiten du edukiten dian gozo baliousa ; hourrak berak berhezten du beste lagunetarik. Bedatsia eguruki bada sohoun hountzeko, eros chouritik

Hounen herecha ezta « grisarena » bezain gachto kabale alhazalentako. Latsun harrian ere heltu bada, bestiak beno hobeki emaiten du ; bena ezta osoki segur.

Soho hountziaz mintzo gira. Alhorrian hobeki baliatzen da *chouria* ; dian gozo baliousa bertanago emaiten du.

*Grisaren* hoununez mintza ordu dugu. Gorago erran dugun bezala, « grisian » bada latsun ountsatto, usu erdia : eta latsun hortarik pharte houn bat, berhez ehi. Ez haimbeste « chourian », ez ja lagunetarik berhezten denetik.

Hobe arren *scories* horik latsun guti dien lurrentako ; ageriago herecha buztanlurrian, hariña lurrian : latsun mentsa suplitzen du. *Chourian* den *acide phosphorique* delako gozotik pharte, latsun mentsian, burduñaren aideko lagun elibateki juntatzen da, eta belhar zaiñek ezte beretu ahal ukhenen.

Hourtokietan, soho aphaletan, feit haboro eginen du « grisak » berareki dian latsunari esker. Hala-hala, lur thiranetan ; lachatzen dutu latsunak, berotzen lur hotzak, kharatsdura hausten beste zoubaiti. Emenda liro aldiz « chouriak ».

Belhar gachto hanitchen zaiñak, erraerazten dutu *grisian* den latsunetik pharte batek, soltu denak. Soho zaharretan hata *azote* izeneko gozo ountsatto, lur errasa gainti khurutchelara, thiran thirana diren belhar oundar eta zañetan ; hounkallu franko, bena ez belhar berriari houn egiteko gisan ; latsunak jauzerazten deitze hoununiak ; berdemboran emendatzen du aidiaren igarangia. Hanitch houn lizate halako sohoun arhatzia, bedatsian.

Beste hounune bat. « Grisian » den *acide phosphorique* deitzen den gozoua, ezta hourrian hourtzen, eta, hartakoz, soho, ordokietan, eztu hourrak berareki eramanen belhar zaiñen alde pialat; soho pharetetan ere eztu eramanen alde kampoualat, sohozola gainti.


Ezteite osoki ber gaiza erran « chourian » den ber mutako gozouaz. Hau hourtzen da hourrian; belhar zaiñiala heltu gabe, hourrak berareki khozu bat eramanen du; gal aldiz jouana. Erran behar dugu hantik, pharterik handiena, behin lurrialatu ondouan, hourrak ez eramaiteko gisan jarten dela. Soho pharretetan galtzerik handiena.

Bena *grisian* den lur hountzalia, ezpada hourrian hourtzen, noula zaiñ ttipiek hurrupaturen die? Beretzen die, hour bilhatu gabe; barnen badie hour kharrats bat, eta, hour horri esker, biltzen die gozo balioua.

Bestiak beste, *grisa*, *chouria* beno khountu hobe ukheiten dugu, bietan ber phezuko gozoua erosten dugularik. « Chouriaren » lana handiago da, khos-tousago egitia.

Egia da *chouriak* bere gozoua bertanago emaiten dila; aski da *grisaren* lehen barreatzia, bedatsia eguruki gabe; emeki emeki zaiñetara hel ahal dadin hounkallia, belharraren iratzar phuntuko.

Alhazalerik gaizki hel eztaadin, soho hountia debetatzen da dembora bouchi batez. Erhauts barreatziak euria gaiña behar luke; zertako? Gozo balioua bertan zaiñetara eraits dadin.



## II. — Lur sagar eskutatzia.

Eskutatzia houn dia lur sagarrak? Arrount, *bai*, ihardetsiren du irakourzale batek beno haborok. Gaizak ountsa ikhertuz eta phezatuz mintzo direnek eztie, erreserburik egin gabe, *baia* emaiten. Segurda, lur sagar ostouak edertzenago direla zankhouen lurstatziareki. Bena bethi osto flokari emanik deia ondosta? Ez bethi. Eztira, khantuko ere, ber tchestuko eta bardin lodi lurrak oro; bada lur sagar mota bat beno haboro; dembora ere hanitch arida. Usian, hobe eskutatzia: zoubait aldiz, ez hobe, ez eta ere gachtouago; pardita ere izaten ahal da.

1. — Thiran deia *lur sagar eraikigia* haboro habouetan houn baizik eztate eskutatzia. Lurra harrochka nahi du lur sagarrak; aide beharra badu, largagia ere bai. Lur thirala aldiz, nekez traukatzen aidiak; hala hala, zañak nekez harat-hounatkatzen, nekezago loditzen sagarrak.

Lurraren idorregiz edo bousti egiz, lur sagarren, beren phuntian ez eskutatu ahal ukheitia agitzen ahal da. Hobe ordian lurraren ukhuru uztia.

Zinez utsalturik deia lurra, bere klotetik zothalareki zotuka leite zankhoua; gachto aldiz igitze hori. Gachto orano lur mardo, bella, athetzia; berouareki gogortzen da emplastu hori, azal gogor bat egiten. Ezin handit sagarrak horren thiran denian lurra.

Lur arhin, goiheratik erabilietan, eskutatziak eztu ondoramen hounik baizik. Halako lekhietan, ondosta achalianchka egiten da; eztitake net apha eraitch zaiñak. Haitzurraz athetu lurrari esker, eztiago egonen da ondoua; sagarrak ere aisago eginen. Hedatzeko tregoua haboro badukie.

2. — Erran duguna, bada *mota hanitchetako* lur sagar. Bada gorakaririk, aphalkaririk ere bai; batak

lur achalian egiten dira, bestiak, ountsa lurrez thapaturik laketago. Aphaltto egiten den ondosta, aisago erauzten du haitzurak eziz eta achalekoua; zotuku horrek aldiz, ezteio hounik egiten ahal.

Bortchaz ere zain zoumbait phikatzen da, noun ezten goizik egiten eskutatzia. Gisa oroz althe die eskutatzia lur achaletik hullan egiten diren sagarrek. Jateko haboro badukie. Eztira berdaturen ere. Aide beharra badu lur sagarrak; bena, sobera sobera horrek ere; eztu behar chuchenka hounki; bestelan berdatzen da. Ulhumpia maite du. Azkarrago zankhoua ere, goratto artio lurrez thapatzen bada.

3. — Zouin da eskutatzeko *phunturik hoberena*? Arduran khausita, goisik egitez, sagarren egiten haste hastiareki. Lur sagar aphaltto eraitsliak eskuta ditzagula, zankhouak orano llaburtto direno. Mota hori da mimbera-ena. Horri deio ogen haborouenik egiten haitzurak. Hau ere egin ahal deite: bekhanago egin phuntu eta herrokak.

Boustitia althe du lur sagarraren eritarzunak. Ezaguturik da aldiz, peko sagarrer, achalekouer beno azkarkiago alhatzen dela eritarzun hori.

Berantian egin eskutatze batek, gaineko sagarrak egiten lagunturen dutu. Denaz ere chothilago galtzia.

Ezaguturik da orano, lur harrotia partida diala lur sagarraren gaitzak; lur thiranian laketago da, eta ountsattoz. Buru hortarik hobe arren eskutatzia.

Ahalaz idorrareki egin dezagula lan hori, lurra athetzen dugularik lehen ostouen phartigiala artio.





### III. — Noula zourrak begira tzustotzetik.

Orok dakiguna da zour lanthiak, kampouan, barren beno bertanago tzustotzen direla. Bousti idorrek pardita dutu zourrak. Ere goundroustatzen dira ekhiari eta ebriari phara egon behar diren hanitchko zourrezko tresna, goundroustatzen bezala tintatzen ere bai.

Houna bi zour begirari hoberenen izenak. Bata *créosote* deitzen die; bestia : *sulfate de cuivre*, bitriol hourra uskaraz.

*Créosote* delakoua hour argi bat da; goundroutik idokiten die; hanitch borthitz du urrina. Hour hori bero-erazten da; etchit ez hatik herak-erazten. 80 degre-etara heltu denian, sutik elkhi behar du. Hourra hoztera utzi gabe, zour, tzustotzetik begiratu nahi direnak, trempan ezarten dira, eta han uzten hamar hamabi orenez; gero idor-erazten, euriak hounkiren ez dutian gune batetan. Luze da aidestatze hori; sei hilabete, ourthia iraiten du. Hartakoz, egin lana aitzinara. Ezta khario khario *creosote* izeneko hour hori. Ountsatto haatik behar da, handitto direnian maidanak.

*Bitriol hourra* ere hanitch houn ezaguturik den gaiza bat, zourren sano begiratzeko. Ehun boutilla hourretan lau, bost kilo bitriol hourt erazten da, zourrak aldiz bost, sei egunez trempan etchekiten, sar ahal dakien bitriol hourra.

Hanitch houn lizate haga, kholte, kihilla habe eta beste lurrian sarthu behar direnen hour horietarik batian, trempan etchekitia; lurrian gorderik egon behar dian phartiaz mintzo girade; hora da bertanenik tzustotzen. Dudarik gabe, hobe lizate, zolaren bezala, gaiñiaren drogastatzia gorachiago erran dugun bezala. Oro ezin bada, egin pharte.

Bada kholten, *su garrian*, zorrotzkualako gaintitik igaraile, beltch beltcha jar artio, deus eskalampouak egiten diren bezala. *Créosote* eta bitriol hourrak, hobe die ondoramena.


Ezaguturik da orano, *erdiratzez* egin kholtek eta phaldouek, haboro iraiten direla eziz eta segatzez eginek.

*Anglesek* errembesialat sartzen dutie kholtiak, ez zuhaiña handitu den bezala, zaiñetako gaintia lur pialat ezartez. Kholte geiak phuntalatko aldetik zorrottu behar du; hala hala, kihilla habe bat ezarten denian, lur pialatzen da, zuhaiñian gorenik zen gaintia, adarretakoua.

Gisa hortara sarthu, ala kholtiak, ala kihilla habiak, luzazago iraiten du. Ezta gaiza khostous bat; *nour* nahik esprabatzen ahal du.



## ISTORIA ETA ERASI



**L**ABORARI batek ezari zian behin bere sorho batetako sargian : Heben, prezio doietan alhatzen dira zaldiak. Buztana luze diententako phakatu behar da hogei sos ; buztana llabur diententako hamar sos orenian. « Zertako berhezigoa hori zaldietan eta zertako jaozi hori prezioetan ? » galthatu neion, igaraitez, sorhoaren naosiari. Houna zer ihardetsi eman zeitadan. « Buztana luze dian zaldiak ohiltzen ditizu uliak buztanarekin, buriaren beharrunerik gabe ; hartakoz eztizu demborarik galtzen alhatzian. Bena buztana llabur dianak, badizu buriaren usu erabili beharra ulien ohiltzeko, eta

arte hartan eztizu belharrik jaten; hartakoz eztit hountako phakaerazi behar, kontzentziaz, bestia-  
rentako bezainbeste. »

\*  
\*\*

Erran zahar bat, besteren ganik zerbutchu behar-  
rian denarentako: besten buztanaz uliak ohilturik  
ukhen behar tian aberia, haboroetan uluz betherik  
da.

\*  
\*\*

Etchekoandera eta neskatoa aharran ari dira.  
Etchekoanderaiak: « Kattina; berriz hola egiten badei-  
tadazu, bortchatu nukezu beste neskato baten hart-  
zera. » Kattinak, enthelegatu ezpalu bezala: « Bai  
segur, ountsa eginen dizu Madamak, ezi, baduzu  
etche hountan bi neskatoen lana. »

\*  
\*\*

*Laborari buruzkinbat.* — Errelijione gabeko kargu-  
lant batek bathu zian behin Bretañako laborari bat,  
khounderak eskietan, aberen ondotik, bide chenda  
bat gainti zabilana eta trufazko erri batekin erran  
zeion: « Zien khounderak oro hartuko deitziegu eta  
suan sarthuko. » — « Goure etchetan baditizugu khu-  
rutzefikak, Ama Birjinaren eta Saintien potretak,  
hen aitzinian othoitze eginen dizugu! » iharbesten du  
laborariak. » « Zien bortha harlachiak gainti sarthuko  
gutuk eta zien khurutzefikak eta saintu potretak che-  
hekatuko deitziegu, » dio kargulantak. — « Goure  
elizetan sarthuko gutuzu eta han othoituko dizugu  
goure Jinkoa, » dio bere aldetik laborariak. — « Elizak  
zerratuko deitziegu eta ez zidie haboro han sarthuko. »

— « Ordian, elizari eta eliza-thorriari buruz, kanpo-tik othoitzian ariko gutuzu. » — « Eta Elizak eta eliza-thorriak ourthoukitzen balinbadutugu, ordian berere baratuko ziradie othoitze egitetik, » erraiten du azkenekoz kargulantak. Laborariak, trufaz eta khechuz begiak argiturik, ihardesten dero: « Othoitze eginen dizugu izarrer buruz; egotch itzatzie ahal batutzie ! »

\*  
\*\*

Muskuldiar emazte bat joan zen behin Maulea, zare beltcha arraotzez betherik, eta boutiga baten aitzinian igaraitiareki, ikhouston dutu nabela andana bat herrokaturik bitre gibelian.

Chuchen, ohartzen zaio senharrak galthehin deiola bat eros dizon eta sartzen da boutigan. Haitatzen du nabela bat eta erraiten du martchantari: « Nabela hau zounbat khosta da, plazer baduzu? » — « Hoge eta hamar sos » — dio martchantak. — « Erdiaz phuru kharioegi duzu, hamabost soretan utziko deitadazu bai. » — Arrouent, martchantak: — « Nitaz trufatu nahi zira, anderia; hau erdiaz kharioegi dela? Bena abia zite eia eginen duzunez zuk holako nabela bat, hoge eta hamar soretan ere? »

*Muskuldiar* emaztettoak, ezpeitzen tontoa, ihardesten deio: — « Arrazou duzu, jaona; tratia eginen dizugu, bena kondizione batetan; arrautze emanen deizu dala phakutako sosaren orde. » — « Baitabai; nahi duzun bezala, preziski arraotze erosi beharrian dit etcheke-anderia. » — Eta houna Muskuldiar emazte arrautcheroa, zare beltcha boutigako mahañen gañen ezar, zabal, eta, kasu handirekin, hamar arrautzeren herrokatzen, eta gero zaria zerra eta erraiten: « Hor duzula jauna zoure phakia; hamar arrautzek, hirourna sos, egiten dizie hoge eta hamar sos, zoure nabelaren balia. » — Eta martchantak edireiten beitzian arraotziak bia sos aski phakaturik

zirela, bat emaztettoak eskietara hartzen du eta martchantari sudurraren aitzinian ezariz erraiten dero : « Diozu, jauna, ene arraotzek eztiela balio hirourna sos? Eia, eia, zuk bat berbera egin ezazu, hau bezañ eder, eta erosten deizut lau sosetan. »

\*  
\*\*

*Moddoro ezten bat.* — Bizar egile baten etchen sartzen da gizon bat, jarten ere, barnekouer egunhour eman eta arrount, beste batbedera bezala, aldia jin artino. Jarri deia bai, batbatetan, tchakur bat bezala, tchampaz eta kouhichtaz hasten da ; jauz hara, jauz houna ; ousoukiz chehekatzen dutu atzaman gairak. Ahotik elkhitzen zaio bahuts bat, chouri chouria ; flok-ka erorten.

« Zouazte oro hebentik, oiuhu egiten du barnekouer, kanpoua har ezazia eta khuto. Diala hirour hilabete, hor batek ousouki nai. *Khen* ziteie bertan, ezi zien ousoukitzeko errabiareki niz. »

Besterik gabe, barnekouek kanpoua hartzen die eta zouin lehentaka. Polizako gizonetara badoua nausia ; horietarik bigeki uzultzen da etcherat. Hirourak sartzen dira bizar egingian. Gainti orotarot so eta ez ihour ere ageri. Sos goitigia zabalik. Goure gizon *errabiatiak* hatia hountu zian, 550 libera sakolan, eta bere adrezarik utzi gabe.

\*  
\*\*

Pheredikagiatik behin, aphez batek erran zian baizik eta ere Salbazaliak aldi batez bost jente hazi zutiala bost mila ogiekin. Mezatik landan giltzañak erran zeron : « Jaona erran duzu goure Salbazaliak bost jente hazi zutiala bost mila ogiekin. Zer mirakullia ! Nik ere beste hainbeste eginen nizun. » Aphezak etzeron ihardetsi batere. Bena ondoko iganteko pheredikian berriz aiphatu zian mirakulliaz mintzoden ebanjelioa, eta lehen aldian ichoustian gaichki khountatu ziana, eta behar bezala erran Sal-

bazaliak bost mila jente bost ogieki hazi zutiala. Pherediku ondoan gero erran zeron giltzañari : « Errak, hooou Pette, hik ere hoi eginen hiana ? » Bestiak hain zalhe : « Bai, Jaona, bai, igaran igantian baratu ogi ondarreki. »

\*  
\* \*

Gizon batek gai batez amets egin zian jan ziala ar-raotzebat gordinik, eta joan zen azti bati galthatzera, eia amets harek zer zedukan. Aztiak erran zeron ar-raotze chourinkoaren jatiak erran nahi ziala laster zilhar ountsatto jinen zerola, gorrinkoak aldiz urhe ere ukhenen ziala. Eta hala agitu zen. Hantik denbora bouzibaten burian amets egiliak ukhen zian jitebat beitzutian zilhar eta urhe, bietarik. Joan zen berhala aztiari bere ezagutzaren egitera eta eman zeron zilhar phezabat. Ez peitzeron dudagabe aski hori, aztiak borthala laguntziareki erron zeran : « Errak eta eztuka arren deusere emaiten gorrinkoarentako ? »

\*  
\* \*

Bestorduz basa bazter batetako janartorbati jin zeitzon lagun zounbait eguerdi irian, gosiak harturik. Harek ederki hounki jin egin zeien, eta alegia egin zian igorten zutiala bi gelhariaz bata zederriala, bestia aldiz ollaotegiala. Berak aldik hartu zian sakramentien emaiteko behar den elizako arropa eta librubat eskian etcherik jalkhitzera abiatu zen : « Bena, janartora, nourat zoaza hola ? » deroie galthatzen barazkalzalek. Eta harek : « Ez hurrun ez, berhala ziekin uzu. Beitugu herrian gizon uzurridunbat, banoazie bazkal arte hountan, haren kobesatzera. » Eta horren erraitiareki kanpoa hartu zian. Bestek ordian, berri horren entzutiak berak harri erazirik, zalhe hantik kabara hountu zien, uduri eta uzurria aztaler etchekara ziela.



MAIATZA edo EPHAILA

Eg luzatzen dira oren eta laordenez

\*\*\*


- ☉ l. l., 8<sup>n</sup>, goizanko 1<sup>or</sup> eta 3<sup>2m</sup>.
- ☽ a. o., 16<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 4<sup>1m</sup>.
- ☾ a. l., 23<sup>n</sup>, gaiherdi, eta 26<sup>m</sup>.
- ☀ a. b., 30<sup>n</sup>, goizanko 30<sup>or</sup> eta 24<sup>m</sup>.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> drano.

\*\*\*


- ☉ l. l., 7<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 5<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 14<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 4<sup>m</sup>.
- ☾ a. l., 21<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>oreta</sup> 3<sup>5n</sup>.
- ☀ a. b., 28<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 4<sup>1m</sup>.



|                           |                               |                          |                              |
|---------------------------|-------------------------------|--------------------------|------------------------------|
| 1 Ostirale.               | J. Filipe et Jak. Ap.         | 1 Astelehen.             | s. Kler.                     |
| 2 Neskanegun.             | s. Atanasi.                   | 2 Asteharte.             | s. Poten.                    |
| 3 <b>Igante.</b> 2.       | <i>Da Khurutze.</i>           | 3 Astizken.              | s <sup>a</sup> Klotilda.     |
| 4 Astelehen.              | s <sup>a</sup> Monika.        | 4 Ostegun.               | s. Frantzes K.               |
| 5 Asteharte.              | s. Pio V.                     | 5 Ostirale.              | s. Bonifazi.                 |
| 6 Astizken.               | J. Johane Eb. B. L.           | 6 Neskanegun.            | s. Norbert.                  |
| 7 Ostegun.                | s. Stanizlaz.                 | 7 <b>Igante.</b>         | PHENTEKOSTE.                 |
| 8 Ostirale.               | J. Migel. agert.              | 8 Astelehen.             | s. Medart.                   |
| 9 Neskanegun.             | s. Gregori na.                | 9 Asteharte.             | s <sup>a</sup> Pelajia.      |
| 10 <b>Igante.</b> 3.      | s. Antonen.                   | 10 Astiz. <i>IVTh.B.</i> | s <sup>a</sup> Margarita.    |
| 11 Astelehen.             | s. Orienz.                    | 11 Ostegun.              | J. BARNABE, <i>ap.</i>       |
| 12 Asteharte.             | s. <i>Nere eta Akil.</i>      | 12 Ostir. <i>IVTh.B.</i> | s. Johane Fag.               |
| 13 Astizken.              | s. Jenio.                     | 13 Nesk. <i>IVTh.B.</i>  | s. Antoni, Pad.              |
| 14 Ostegun.               | Johane Sala, d.               | 14 <b>Igante.</b> 1.     | TRINITATE.                   |
| 15 Ostirale.              | s. Eutrope.                   | 15 Astelehen.            | s <sup>a</sup> Jermena.      |
| 16 Neskanegun.            | s. Johane Nep.                | 16 Asteharte.            | s. Franzes R.                |
| 17 <b>Igante.</b> 4.      | s. <i>Paskal.</i>             | 17 Astizken.             | s. Avit.                     |
| 18 Astelehen.             | s. Venanzio.                  | 18 Ostegun.              | BESTABERRI.                  |
| 19 Asteharte.             | s <sup>a</sup> Pudenziana.    | 19 Ostirale.             | s Jervasi eta Prot.          |
| 20 Astizken.              | s. Bernardeñ.                 | 20 Neskanegun.           | s <sup>a</sup> Juliena Falk. |
| 21 Ostegun.               | s. Petiri Zel.                | 21 <b>Igante.</b> 2.     | s. <i>Louis Gonz.</i>        |
| 22 Ostirale.              | s <sup>a</sup> Kiteria.       | 22 Astelehen.            | s. Pauleñ.                   |
| 23 Neskanegun.            | s. Ubalde.                    | 23 Asteharte.            | s. <i>Eusebio.</i>           |
| 24 <b>Igante.</b> 5.      | A. B. Lagunzalia.             | 24 Astizken.             | J. JOHANE BA.                |
| 25 Astel. <i>Errogaz.</i> | s. Gregori VII.               | 25 Ostegun.              | s <sup>a</sup> Eurosia.      |
| 26 Asteharte.             | s. Filipe Neri.               | 26 Ostirale.             | J. BIHOTZ SAK.               |
| 27 Astizken.              | s <sup>a</sup> M. Mad. P.     | 27 Neskanegun.           | s. Prosper.                  |
| 28 Ostegun.               | SALBATORE                     | 28 <b>Igante.</b> 3      | s. <i>Irene.</i>             |
| 29 Ostirale.              | s. Garzia.                    | 29 Astelehen.            | J. PETIRI eta P.             |
| 30 Neskanegun.            | s. Felis.                     | 30 Asteharte.            | J. Phaoleren orh.            |
| 31 <b>Igante.</b>         | s <sup>a</sup> <i>Anjela.</i> |                          |                              |




## UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1<sup>ez</sup>.


- ☽ *l. l.*, 6<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 34<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. o.*, 13<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 57<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. l.*, 20<sup>n</sup>, eguerdi eta 11<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. b.*, 28<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 26<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2




- ☽ *l. l.*, 5<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 49<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. o.*, 12<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 8<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. l.*, 18<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 34<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. b.*, 26<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 8<sup>m</sup>.



|                      |                        |                       |                        |
|----------------------|------------------------|-----------------------|------------------------|
| 1 Astizken.          | s. Tierri.             | 1 Neskanegun.         | J. Petiri katietan.    |
| 2 Ostegun.           | A. B. BIZITAZ.         | 2 <b>Igante.</b> 8.   | s. Alfonso, Lig.       |
| 3 Ostirale.          | s. Gillen.             | 3 Astelehen.          | J. Ezteber. edir.      |
| 4 Neskanegun.        | s. Leon II.            | 4 Asteharte.          | s. Dominiche.          |
| 5 <b>Igante.</b> 4.  | <i>Jes. Odol. Pr.</i>  | 5 Astizken.           | <i>A. B. M. Elhur.</i> |
| 6 Astelehen.         | s. Trankile.           | 6 Ostegun.            | J. K. Transfig.        |
| 7 Asteharte.         | s. Marzial.            | 7 Ostirale.           | s. Kajetan.            |
| 8 Astizken.          | sa Beronika.           | 8 Neskanegun.         | s. Ziriako.            |
| 9 Ostegun.           | sa Elisabet, p.        | 9 <b>Igante.</b> 9.   | s. Jermeñ.             |
| 10 Ostirale.         | Zazpi anaie m.         | 10 Astelehen.         | s. Laorenz, m.         |
| 11 Neskanegun.       | s. Pio.                | 11 Asteharte.         | s. Tiburze.            |
| 12 <b>Igante.</b> 5. | s. <i>Johane Galb.</i> | 12 Astizken.          | sa Klara.              |
| 13 Astelehen.        | s. Anaklet.            | 13 Ostegun.           | sa Radegonda.          |
| 14 Asteharte.        | s. Bonaventura         | 14 Ostirale           | s. Eusebi.             |
| 15 Astizken.         | s. Johane Maj.         | 15 Neskanegun.        | A. D. M. MARIA Zel.    |
| 16 Ostegun.          | A. D. M. KARM.         | 16 <b>Igante</b> 10.  | s. <i>Joakim.</i>      |
| 17 Ostirale.         | s. Aletsis.            | 17 Astelehen.         | sa Emilia.             |
| 18 Neskanegun.       | s. Kamille.            | 18 Asteharte.         | sa Elena.              |
| 19 <b>Igante.</b> 6. | s. Bizente Paolo.      | 19 Astizken.          | sa Filomena.           |
| 20 Astelehen.        | s. Filibert.           | 20 Ostegun.           | s. Bernat.             |
| 21 Asteharte.        | sa Pratseda.           | 21 Ostirale.          | s. Julien Lesk.        |
| 22 Astizken.         | sa <i>M. Maidalena</i> | 22 Neskanegun.        | s. Ipolita.            |
| 23 Ostegun.          | s. Apolinari.          | 23 <b>Igante.</b> 11. | <i>A. B. Bihotz s.</i> |
| 24 Ostirale.         | s. Henrik.             | 24 Astelehen.         | J. BARTTOL. a.         |
| 25 Neskanegun.       | J. JAKOBE, <i>ap.</i>  | 25 Asteharte.         | s. Louis erreg.        |
| 26 <b>Igante.</b> 7. | sa <i>Ana.</i>         | 26 Astizken.          | s. Filibert.           |
| 27 Astelehen.        | s. Galatori.           | 27 Ostegun.           | s. Jusef. Kal.         |
| 28 Asteharte.        | s. Nazari eta Zelze.   | 28 Ostirale.          | s. Agosti.             |
| 29 Astizken.         | sa Marta.              | 29 Neskanegun.        | J. Joh Lephom.         |
| 30 Ostegun.          | s. Abdon.              | 30 <b>Igante.</b> 12. | sa <i>Rosa, Lima.</i>  |
| 31 Ostirale.         | s. Inazio Loiala.      | 31 Astelehen.         | s. Remoun N.           |





BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.

\*\*\*


- ☉ l. l., 3<sup>n</sup>, arratseko 9 oran.
- ☽ a. o., 10<sup>n</sup>, eguerdi eta 32<sup>m</sup>.
- ☾ a. l., 17<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 42<sup>m</sup>.
- ☀ a. b., 25<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 8<sup>m</sup>.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.

\*\*\*

- ☉ l. l., 3<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 23<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 9<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 12<sup>m</sup>.
- ☾ a. l., 17<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 44<sup>m</sup>.
- ☀ a. b., 25<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 56<sup>m</sup>.



|    |                         |                           |
|----|-------------------------|---------------------------|
| 1  | Asteharte.              | s. Bizente, ap. m.        |
| 2  | Astizken.               | s. Eztebe, erreg.         |
| 3  | Ostegun.                | s. Lizier.                |
| 4  | Ostirale.               | sa Franz. Ch.             |
| 5  | Neskanegun.             | s. Laorenz J.             |
| 6  | <b>Igante.</b> 13.      | s. <i>Onesiforo.</i>      |
| 7  | Astelehen.              | s. Zebero.                |
| 8  | Asteharte.              | A. B. SORTZIA.            |
| 9  | Astizken.               | s. Omer.                  |
| 10 | Ostegun.                | s. Nikolas.               |
| 11 | Ostirale.               | s. Hiazinte.              |
| 12 | Neskanegun.             | s. Gi.                    |
| 13 | <b>Igante.</b> 14.      | A. B. <i>Izen Saint.</i>  |
| 14 | Astelehen.              | D <sup>na</sup> Khurutze. |
| 15 | Asteharte.              | s. Nikomede.              |
| 16 | Astiz. <i>IV Th. B.</i> | s. Ziprien.               |
| 17 | Ostegun.                | s. Franz Zaor.            |
| 18 | Ostir. <i>IV Th. B.</i> | s. Jusef Kup.             |
| 19 | Nesk. <i>IV Th. B.</i>  | s. Janvier.               |
| 20 | <b>Igante.</b> 15.      | A. B. DOLOR.              |
| 21 | Astelehen.              | J. MATHIU, Eb.            |
| 22 | Asteharte.              | s. Maor.                  |
| 23 | Astizken.               | sa Rekla.                 |
| 24 | Ostegun.                | A. B. Librazalia.         |
| 25 | Ostirale.               | s. Aostinde.              |
| 26 | Neskanegun.             | s. Tomas Vill.            |
| 27 | <b>Igante.</b> 16.      | s. Kosme eta Dam.         |
| 28 | Astelehen.              | s. Faoste.                |
| 29 | Asteharte.              | J. MIGEL, ark.            |
| 30 | Astizken.               | s. <i>Jeronimo.</i>       |

|    |                    |                        |
|----|--------------------|------------------------|
| 1  | Ostegun.           | s. Remi.               |
| 2  | Ostirale.          | Ainguru Begir.         |
| 3  | Neskanegun.        | s. Frantzes, As.       |
| 4  | <b>Igante.</b> 17. | ARRUSARIOA.            |
| 5  | Astelehen.         | s. Venzeslaz.          |
| 6  | Asteharte.         | s. Bruno.              |
| 7  | Astizken.          | s. Fide.               |
| 8  | Ostegun.           | sa Birjita.            |
| 9  | Ostirale.          | s. Denis.              |
| 10 | Neskanegun.        | s. Frantzes B.         |
| 11 | <b>Igante.</b> 18. | A. B. <i>Amalarz.</i>  |
| 12 | Astelehen.         | sa Domnina.            |
| 13 | Asteharte.         | s. Fdoart.             |
| 14 | Astizken.          | s. Kalista.            |
| 15 | Ostegun.           | s. Teresa.             |
| 16 | Ostirale.          | s. Bertran.            |
| 17 | Neskanegun.        | J LUKAS, Eb.           |
| 18 | <b>Igante.</b> 19. | A. B. <i>Garbitarz</i> |
| 19 | Astelehen.         | s. <i>Grat.</i> Olor.  |
| 20 | Asteharte.         | s. Johane K.           |
| 21 | Astizken.          | sa Ursula.             |
| 22 | Ostegun.           | s. Petiri, Alk.        |
| 23 | Ostirale.          | s. Leotade.            |
| 24 | Neskanegun.        | s. Rafael, ark.        |
| 25 | <b>Igante.</b> 20. | A. B. <i>Patron.</i>   |
| 26 | Astelehen.         | s. Evarista.           |
| 27 | Asteharte.         | s. Fronton.            |
| 28 | Astizken.          | J. SIMOUN, ap.         |
| 29 | Ostegun.           | sa Eusebia.            |
| 30 | Ostirale.          | s. Kazieñ.             |
| 31 | Neskanegun.        | s. Zirizio.            |



AZAROA edo GOROTZILA  
Egunak llaburtzen dira orenez.


\*\*\*

☽ l. l., 1<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 26<sup>m</sup>.  
 ☽ a. o., 8<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 7<sup>m</sup>.  
 ☽ a. l., 15<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 50<sup>m</sup>.  
 ☽ a. b., 23<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 2<sup>m</sup>.  
 ☽ l. l., 30<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 53<sup>m</sup>.

ABENTIA edo NEGILA  
Eg. llaburtzen dira 27 min, 22<sup>no</sup>.

\*\*\*

☽ a. o., 7<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 53<sup>m</sup>.  
 ☽ a. l., 15<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 22<sup>m</sup>.  
 ☽ a. b., 23<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 59<sup>m</sup>.  
 ☽ l. l., 30<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 49<sup>m</sup>.



|                       |                                 |                            |                                |
|-----------------------|---------------------------------|----------------------------|--------------------------------|
| 1 <b>Igante.</b> 21.  | DONISANTORE.                    | 1 Asteharte.               | s. Eloi.                       |
| 2 Astelehen.          | <i>Purg. Arimak.</i>            | 2 Astizken.                | sa Bibiana.                    |
| 3 Asteharte.          | s. Zebero.                      | 3 Ostegun.                 | s. <i>Frantzés Zab.</i>        |
| 4 Astizken.           | s. Charles Bor.                 | 4 Ostirale.                | sa Barbara.                    |
| 5 Ostegun.            | s. Zakaria.                     | 5 Neskanegun.              | s. Sabas.                      |
| 6 Ostirale.           | s. Leonart.                     | 6 <b>Igante.</b>           | <i>Abentuko 2<sup>a</sup></i>  |
| 7 Neskanegun.         | s. Florent.                     | 7 Astelehen.               | s. Ambrosi.                    |
| 8 <b>Igante.</b> 22.  | <i>Errelikia s<sup>k</sup>.</i> | 8 Asteharte.               | A. B. KONTZEP.                 |
| 9 Astelehen.          | s. Teodoro.                     | 9 Astizken.                | s. Jeronze.                    |
| 10 Asteharte.         | s. Andreu Av.                   | 10 Ostegun.                | sa Fulalia.                    |
| 11 Astizken.          | J. MARTINE.                     | 11 Ostirale.               | s. Daniel.                     |
| 12 Ostegun.           | s. Stanizlaz K.                 | 12 Neskanegun.             | s. Melkiade.                   |
| 13 Ostirale.          | s. Didazi.                      | 13 <b>Igante.</b>          | <i>Abentuko 3<sup>a</sup>.</i> |
| 14 Neskanegun.        | s. Josafat.                     | 14 Astelehen.              | s. Arzene.                     |
| 15 <b>Igante.</b> 23. | ELIZEN SAKR.                    | 15 Asteharte.              | s. Mismeñ.                     |
| 16 Astelehen.         | s. Edmon.                       | 16 Astiz. <i>IV Th. B.</i> | s. Euzebio.                    |
| 17 Asteharte.         | s. Gregori T.                   | 17 Ostegun.                | s. Lazaro.                     |
| 18 Astizken.          | s. Odon.                        | 18 Ostir. <i>IV Th. B.</i> | s. Gazieñ.                     |
| 19 Ostegun.           | sa Elisabet Ong.                | 19 Nesk. <i>IV Th. B.</i>  | s. Urbeñ.                      |
| 20 Ostirale.          | s. Felis, Valenci.              | 20 <b>Igante.</b>          | <i>Abentuko 4<sup>a</sup></i>  |
| 21 Neskanegun.        | <i>A. B. Eskentzia</i>          | 21 Astelehen.              | J. TOMAS, Ap.                  |
| 22 <b>Igante.</b> 24. | sa <i>Zexila.</i>               | 22 Asteharte.              | s. Flavieñ.                    |
| 23 Astelehen.         | s. Klement.                     | 23 Astizken.               | s. Onorat.                     |
| 24 Asteharte.         | s. Johane Kh.                   | 24 Ostegun.                | sa Delfina.                    |
| 25 Astizken.          | sa Katalina.                    | 25 Ostirale.               | EGUBERRI.                      |
| 26 Ostegun.           | s. Petiri, Alk.                 | 26 Neskanegun.             | J. EZTEBE, m.                  |
| 27 Ostirale.          | s. Virjile.                     | 27 <b>Igante.</b>          | J. JOHANE, Eb.                 |
| 28 Neskanegun.        | s. Maorino.                     | 28 Astelehen.              | Haor Inoz.                     |
| 29 <b>Igante.</b>     | ABENTUKO 1 <sup>a</sup>         | 29 Asteharte.              | s. Tomas Kant.                 |
| 30 Astelehen.         | J. ANDREU, Ap.                  | 30 Astizken.               | s. Manzuet.                    |
|                       |                                 | 31 Ostegun.                | s. Silbestre.                  |



## OURTHEKO HAROAK :


|                                |                    |
|--------------------------------|--------------------|
| BEDATSIA hasten da martchoko   | 20 <sup>an</sup> . |
| UDA hasten da arramaiatzeko    | 21 <sup>an</sup> . |
| LARRAZKENA hasten da buruilako | 23 <sup>an</sup> . |
| NEGIA hasten da abentuko       | 22 <sup>an</sup> . |




## MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6<sup>n</sup>. — ATHAR-  
RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihara-  
n nian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE  
GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste  
ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,  
Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26<sup>n</sup>. — GARRUZEN :  
**m.**, ostir., amoust. ; **f.**, agorrila 1<sup>n</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian.  
— IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3<sup>n</sup> *eta*  
aphiril. 15<sup>n</sup>. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh., amoust. ; **f.**, Bazko ondo-  
ko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh., amoust. — NAVARENKOSEN :  
**m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizk<sup>n</sup>, *eta* abentu 8<sup>n</sup>. —  
ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen  
asteh<sup>n</sup>. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1<sup>n</sup> ;  
*eta* buruila 8<sup>n</sup>, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,  
**f.**, Gorozum. lehen asteleh<sup>n</sup>, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. —  
SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizk<sup>n</sup> *eta* urrie-  
tako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





# Edirengia



|  |    |
|--|----|
| I. Hamabost mila libera.....                           | I  |
| II. Zer irakourten dugu.....                           | 3  |
| III. Daigun maiatzeko bozkak.....                      | 10 |
| IV. Laborantchaz :                                     |    |
| 1 <sup>ik</sup> Scories edo grisa sorhoentako.....     | 13 |
| 2 <sup>ik</sup> Lur sagar eskutatzia.....              | 17 |
| 3 <sup>ik</sup> Noula zourrak begira tzustotzetik..... | 19 |
| V. Istoría eta erasi.....                              | 20 |

